

ARTXIBATEGIEN

ALDARRIKAPEN

UNIBERTSALA



Declaration adopted
by the 36th session of
the General Conference
of UNESCO



Artxibategiek erabakiak, ekintzak eta memoria jagoten dituzte. Artxibategiek ondare **bakar** eta **ordezkaezina** kontserbatzen dute, **belaunaldiz belaunaldi** transmititzen dena. Dokumentuak jatorritik kudeatzen dira artxibategietan, bere balioa eta esanahia **zaintzeko**. Dokumentuak informazio iturri **fidagarriak** dira, eta administrazioen jardueren **segurtasuna** eta **gardentasuna** bermatzen dituzte. Gizartearen garapenean **funtssezko** rola jokatzeko dute, norbanakoen zein kolektiboaren **memoria** osatzen eta **zaintzen** laguntzen baitute. Artxiboetako sarbidea librea izateak gizarteari buruz dugun **ezagutza** aberasten du, **demokrazia** sustatzen du, herritarren **eskubideak** defendatzen ditu eta bizitza **kalitatea** hobetzen du.

Horregatik, aintzat hartzen dugu

- artxibategien **izaera bakarra**, jarduera administratibo, kultural eta intelektuaren lekukotza leiala diren heinean, eta gizartearen bilakaeraren isla;
- artxibategien **funtssezko izaera** kudeaketa eraginkor, arduratsu eta gardena bermatzeko, herritarren eskubideak babesteko, norbanakoen zein kolektiboaren memoria segurtatzeko, eta iragana ulertzeko, oraina dokumentatzeko eta etorkizuna prestatzeko;
- artxibategien **dibertsitatea**, gizadiaren jarduera guztien lekukotasuna jasotzeko;
- dokumentuak sortzeko eta kontserbatzeko **euskarrien ugaritasuna**: papera, ikus-entzunezkoa, digitala eta bestelako edozein;
- **artxibozainen rola**, profesional kualifikatuak izanik, hasierako zein etengabeko prestakuntzarekin, gizartea zerbitzatzen baitute, dokumentuak ekoizteko prozesua bermatuz, horiek hautatuz eta kontserbatuz, erabilera errazteko;
- **guztion erantzukizuna** artxibategiak kudeatzeari dagokionez – herritarrak, kudeatzaileak eta arduradun publikoak, artxibategi publiko zein pribatuak jabeak zein jagoleak, artxibozainak eta informazioaren arloko beste profesionalak–.

Horregatik, elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartzen dugu

- artxibategien gaietan politika eta legezko arauak erabaki eta ezar daitezzen;
- bere jardueran aritzean dokumentuak sortzen eta erabiltzen dituzten erakunde publiko edo pribatu guztiek bere artxiboaren kudeaketa balora eta eraginkortasun gauza dezaten;
- artxibategiak zuzen kudeatzen direla bermatzeko beharrezko baliabideak jar daitezzen, behar bezala kualifikatutako profesionalak barne;
- artxibategiak egiazkotasuna, fidagarritasuna, osotasuna eta erabilera bermatzeko baldintzetan kudea eta kontserba daitezzen;
- artxibategiak denen esku egon daitezzen, arloari buruzko legeak errespetatuz zein pertsona, sortzaile, jabe eta erabiltzaileen eskubideei buruzkoak errespetatuz
- artxibategiak herritarren erantzukizuna garatzen laguntzeko erabil daitezzen.

Artxibategien Nazioarteko Kontseilu Nagusiaren Batzarrak onartua. Oslo, 2010eko iraila. UNESCOren Konferentzia Nagusiak bere 36. saioan babestua, Paris, 2011ko azaroa.